

Espediente mota: Administrazio kontratazioa
Kontratua: Zerbitzu kontratua, prozedura irekia.
Espediente zenbakia: ZE8-III-28

ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA
ZEHATZEN ORRIAK
PROZEDURA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: **Udal igogailuen eta ate automatikoen mantentze zerbitzua**

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Zerbitzu osoa egiteko epea urte bikoa da. Epe hau beste bi urtetan luzagarria izan daiteke

Zerbitzuak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa (luzapenen prezioa barne) 107.431,12 eurokoa da, BEZa kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 22.560,54 eurokoa da.

4. FINANTZIAZINOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da aurtengo



ekitaldiko aurrekontuaren kontura.

5. NOLA ORDAINDU

Ordainketa hiruhilero egingo da, esleipendunak aurkezten duen faktura Udalak onartu ondoren.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Desindexazioko 2/2015 Legeak araututakoaren arabera, kontratu honetan ez da preziorik berraztertuko.

7. BERMEAK

Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dute lehiaketa honetan parte hartzeko. Berme horren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren %3koa izango da, BEZ kanpo, hau da, 3.222,93 euro. Kontratuaren esleipena egin eta gero, diru-kopuru hori ofizioz itzuli egingo da.

Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo duela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko bermerik jartzen ez badu, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

Hori dela eta, enpresa baten eskaintzari ausartegia iritzita enpresa horri informazioa eskatzen bazaio eta berak erantzuten ez badu, proposamena bidezko arrazoirik gabe bertan behera utzi duela uste izango da, eta era berean, lehiatzailearen batek proposamen akastuna edo oinarririk gabekoa aurkeztu duela eta ezin lezakeela bete aitortzen badu, gauza bera uste izango da.

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren edo, egoki denean, lehiaketaren oinarrizko aurrekontuaren edo esleipenaren zenbatekoaren %5 izango da.

Behin-betiko bermea jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, esleipena proposamena jakinarazo eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 96. artikuluan azaltzen



direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian ezarritako moduan burutu beharko da kontratua.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolarenpean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

*Kontratu honen esleipenerako, eta 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen laugarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehentasuna ezartzen da, minusbaliadun langileen kopurua %2a baino gutxiagokoa EZ diran plantiladun lizitatzaileen alde, horrela frogatzen dabenean gaitasun teknikoak kreditatzerakoan, beti ere, honek aurkeztu dabenean proposamenak, eskaintza hoberenaren terminoak bardintzen badabenez, esleipenaren oinarri diran erizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.

Eskaintzak aurkezteko epearen azken egunean, bere plantilan daukien minusbaliadun langile kopurua izango da kontutan, lehentasun hau aplikatzerakoan, eta IX. eranskinaren aitortzearen bitartez kreditatuko da. Lizitatzaileak aipatutako aitortzearen agiria edota eskatutako datu guztiak aurkeztu ez badauz, ez joko lehentasun hau aplikatuko, %2ko minusbaliadun langile kopurura heltzen EZ dala ulertuko dalako efektu gutzietarako, eta ezin izango dau inolaz ere akats hori zuzendu.

Aldi baterako enpresa elkarteetan edota hainbat lizitatzaile aldi batera parte hartzen badabe, lehentasun hau aplikagarri izango da, langile minusbaliatuen kopuruak aipatutako indizea gaitasunak dabenean plantillak daukiela ulertzen danean, kontratuan lizitatzaile bakoitzaren parte hartzearen proportzioan.

Modu berean, lehentasuna ezartzen da Gizarteratzeko enpresen erregulazinoa arautzen dauan 44/2007 Legea betetzen dabean gizarteratze enpresen alde, beti be enpresek daukazan lanpostuen %30ean gutxienez, bazterte egoeran



dagozan pertsonak kontratatze konpromisoa hartu badabe. Bazterte egoeran dagozala ulertuko da kasu honeetan aurkitzen badira:

- Gizarteratze Errenta Minimoa edo baliokideak eskuratzen dabezanak.
- Gizarteratze Errenta Minimoa edo baliokideak eskuratzeko eskubidea ez daukeenak egotaldi edo erroldatze epeak ez betetzeagaitik, jasotze unitatea izateko baldintzak ez betetzeagaitik, edota errenta horreek eskuratzeko gehieneko epeak gainditu dabezalako.
- Adin txikiko babespeneko instituzinoetatiko 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.
- Errehabilitazio edo gizarteratze prozesuan dagozan droga edota alkohol arazodunak.
- Presondegietan preso dagozanak, beti be euren egoereak laneratzea ixten badeutse eta baita be baldintzapeko askatasun egoeran dagozanak edota preso ohiak.
- Ahalmen-urritasundun pertsonak.

Lehentasan erispide bi honeek aplikatu eta gero bardinketa mantenduko balitz, prezio merkeena eskaini dauan lehiatzailearen alde egingo da esleipen proposamena eta, azken kasu honetan be bardinketa egongo balitz, zozketaz ebartziko da esleipena noren alde egin.

9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Bereziki, Bermeoko Udalak onartutako Enpresa Jardueren Koordinaziorako betekizunak bete beharko ditu (I. eranskina).

Modu berean, sektoreko gertueneko hitzarmen kolektiboa osorik aplikatu beharko deutsee kontratu honegaz zerikusia daukeen langileeri.

Esleipendunak betebeharrorreek zehatz beteten dirala bermatu beharko dau uneoro, baita be kontratuaren zatiren bat azpikontratatu baley.

Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Zerbitzuak emoten jardungo dauan enpresek, hau da, esleipendunak, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harremon, txosten eta azalpen guziak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskeraz burutuko beharko dauz. Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak zehatz mehatz betetzea: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako



informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko du, beti ere, abenduaren 13ko Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta Fitxategi Automatizatueta bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurriei buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoak kontutan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak direla-eta, enpresa esleipendunak Udalean lan egingo duen langilearen bitartez, Datuen Tratamenduen arduradun izaera bere gain hartzen du eta nahitaez bete behar dituen legezko betebeharez, lanbide betebeharrak eta betebeharrak deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko du kontratu honek arautzen dituen atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta Toki erakundearekin daukan harremanak amaitu ostean ere, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo du. Tratamenduaren arduradunaren eginkizuna izango da behar diren neurri teknikoak eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatu edo galdu ez daitezen eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez daiten.

Honen guztiaren berme legez, II. eranskin legez agertzen dan konpromisoa sinatu beharko da.

Tratamenduaren arduradunak ez baditu betetzen kontratu honetako baldintzak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez betetze horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik:

- Tratamenduaren arduradunak datu pertsonak erabiltzen baditu alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez duten bestelako helburu baterako.
- Tratamenduaren arduradunak hausten badu datuekiko sekretu gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonari ez komunikatzeko betebeharra.
- Tratamenduaren arduradunak datuak erabiltzen baditu kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz.

Goian adierazitako arau hausteak egiteagatik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez betetzeagatik, tratamenduaren arduraduna tratamendu kontrolatzailezat joko da, eta erantzun beharko dizkie berak egindako arau hausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal bulegoan aurkeztu daikiezan erreklamazioei, bai eta ukituei onartzen jakezan kalte-ordainei ere, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak direla eta erantzukizun egintzez baliatzen badira.

Kontratu harremana legez bukatu ondoren, tratamenduaren arduradunak erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli behako jakoz, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumenturekin batera.



10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratua burutzen dan bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatu ahalko du hurrengo kasu zehatzetan eta ezartzen diren mugekin, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 106. artikulua ezarritakoaren arabera:

- Elementuen (igogailuak, ate automatikoak) kopuruen aldaketa
- Elementuen erabilera ordutegia
- Elementuan erabilera egutegia

Kontratazio plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan ere kontratua aldatu ahalko da.

Herri-onurako arrazoiak direla eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen I. liburuaren V. tituluko kasuetan ematen diren kontratu aldaketetan, kontratazio organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira esleipendunarentzat, Errege Dekretu Legegilearen 219. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Era berean, aldaketok Errege Dekretu Legegilearen 108. eta 211. artikuluetan xedatutako prozeduraren bitartez burutuko dira.

12. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren xedea dela eta, ez da zerbitzu hartzerik.

Egindako lanen gutxienerako bermea baldintza teknikoen agirien 2.5 puntuan ezartzen dana izango da.



13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1000 euroko (212. artikulua).

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezien orrietan aipatzen diren zigorrak ezartzea (212.7 art).

Bermeoko Udalak baldintza teknikoaren agiriko 9. puntuan ezarritakoaren arabeko zigorrak jar ditzake.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223 eta 308 artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 309. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

Horretaz gain, kontratua apurtzeko arrazoia izango da plegu honetako 9. atalean xedatutako guztia ez betetzea eta modu berean, 17. Atalean



aurreikusitako berdintasun plana ez betetzea. Era berean, plegu teknikoen 9. atalean ezarritakoa ez betetzea kontratua apurtzeko arrazoia izango da ere.

Betetzen dala ziurtatzeko, Administrazioak egokiak diran ikuskapenak egin ahal izango dauz eta behar bestekoak eristen dauzan agiriak aurkezteko eskatu ahal izango deutso esleipendunari.

Hori dana, Administrazioagaz kontratatzeke debekua aitortzeko egokiak diran izapideak burutzearen kalte barik.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Esleipena egiterakoan, Plegu Teknikoen 13. puntuan adierazitako irispideak izango dira kontuan.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen teknikoa eta ekonomikoa frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 75. eta 78. artikuluetan ezarritakoak izango dira.



Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

Era berean, genero berdintasuna bultzatzeko plana eduki beharko dabe lehiatzaileek, eta esleipendun suertatu ezker, berau uneoro betetzen dabela bermatu beharko dabe. Baita be kontratuaren zatiren bat azpikontratatu balitz.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten enpresek ezin izango dute, zigorrak ezarritako aldian, deialdira aurkeztu. (XII. eranskina)

Enpresaren sailkapena:

Lehiatzaileak hurrengo enpresa sailkapenak eduki beharko dauz:

P taldea 7. Azpitaldea 1 kategoria

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedienteak, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Administrazio honetako Erregistro Orokorra (Berh@z – Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua), Ertzilla kalea, 6-8, 48370 (Bermeo)

EPEA: 15 egunetan, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.

ORDUAK: Asteleheneetik barikura 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenatan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00. *Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

Proposamenak, aurretik adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira 15 eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



Lehiatzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. "A" kartazalaren azpititulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea persona juridikoa izanez gero:
 - Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
 - Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
 - Arduradunaren NAN.
- c) Kontratatzeke debekurik ez duela aitortzea (IV. Eranskina).
- d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
- e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VIII. Eranskina). Enpresak sailkatze betebeharra badauka, sailkatzearen ziurtagiriak kaudimena ordezkatu du. Sailkatzea ondoko kasuetan derrigorrezkoa da:

Zerbitzu kontratuetan 120.000 €

- g) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (VII. Eranskina). Enpresak sailkatze betebeharra badauka, sailkatzearen ziurtagiriak kaudimena ordezkatu du. Sailkatzea ondoko kasuetan derrigorrezkoa da:

Zerbitzu kontratuetan 120.000 €

- h) Indarreko enpresa-sailkapenaren ziurtagiria P taldea 7. azpitaldea 1 Kategoriatan.



- i) Udalaren diruzaintzan behin-behineko bermea eman izanaren frogagiria.

*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroan izena eman badago, a) b) c) eta d) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordezkariak aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitortza (VI. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopia aurkeztekotan, errekerimendua jaso eta gero, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Errekerimendua jasoten dauan parte hartzaileak 10 eguneko epea izango dau hori egiteko.

“B” kartazalaren azpiztitulua DOKUMENTAZINO TEKNIKOIA izango litzake. Kartazal honetan, erizpide ez matematikoak justifikatzeko agiri guztiak eta erizpide ez matematiko horreen inguruko dosierra sartuko litzake)

- a) Dokumentazio Teknikoa: Eskaintzaileek, baloratuko diren gai bakoitzeko, orrialdeak zenbatuta dituen dossier bat aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren erizpideei buruzko alderdi oro. Hau da:
- Proposamen teknikoaren garapena, mantentzen plana eta azalpen memoria.
 - Gaurkotze teknologikoen proposamenen irismena.
 - Hobekuntzak.

C” kartazalaren azpiztitulua hau izango da: “PROPOSAMENA”. Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren III. **Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.

Ez dira onartuko proposamen hauek:

- 1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
- 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.



- 3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
 - 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
 - 5) Pleguaren III. eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
 - 6) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.
- b) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko erizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.
- c) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorak izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.

19. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Behin, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatuko dau, eta, dokumentazio horretan akats materialak somatuz gero, hiru laneguneko epea emango deutso lehiatzaileari akatsa zuzen daian (Kontratazio Legearen Erregelamenduaren 81. art).

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (160.1. art), aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala eta, egotekotan, "C" kartazala ere) jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean. "A" kartazalean egon ahal izan diran akatsak zuzentzeko eperik eman bada, epe horrek ez du hilabeteko gehienezko epearen zenbaketa atzeratuko, eta berau eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuko da beti. Era berean, aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren berri emongo jake aurretiaz lehiatzaileei, Telefonoz edo faxez.

B kartazala zabalduko da arinago (erizpide ez matematikoak) eta, behin puntuatuta dagozanean, C kartazala (Proposamena eta erizpide matematikoak) zabalduko da jendaurrean.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasako deutso esleipen proposamena.



20. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Prezioaz gainera erizpide desberdinak baloratzen badira, esleipena ko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita (2 hilabete gehienez, 161.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz).

Edozein kasutan (esleipenerako erizpide bakarra edo anitzak daudenean), esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen dan hurrenkerea jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen dan parte hartzaileari, errekerimendua egingo jako, hau jaso eta 10 eguneko epean, honako hauek egiteko (151.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz):

- a) Agiriak aurkeztu edo konpultsatu.
- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- c) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- d) Baldintza-orri administratibo hauetan zein baldintza-orri teknikoetan lan-osasun eta segurtasun betebeharrak frogatzeko beharrezkotzat jo diren agiri guztiak aurkeztu (Enpresa Jardueren Koordinazioa, I. eranskina).

Epe horretan egingo ez baleuz, uko egiten dauala ulertuko da eta zerrendako hurrengokoari deituko jako aitatutako horreek egin daizan. Uko egiten dauanaren, behin behineko bermea Udalaren esku geratuko da.

151.2 artikuluan zehaztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik hasita 5 egun balioduneko epean kontratazio organoak kontratua esleituko du. Prozedura negoziatuetan eta lehiaketa-elkarrizketetakoetan, esleipenak finkatu eta zehaztuko ditu kontratuaren behin betiko baldintzak (151.3 artikulua).

Guztiarekin, esleipena motibatua izan beharko da, lizitatzaillei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, web orrialdean publikatuko da (151.4 artikuluan xedatutako gutxieneko eduki eta baldintzak jarraituz).

Kontratua kontratazio gaiko helegite berezia ezartzeko modukoa bada (40.1 artikulua), ezin izango da notifikazioak bidali eta 15 egun baliodun baino lehenago formalizatu (autonomia erkidegoek hilabetera arteko luzapena ezarri ahalko dute epe honi dagokionez).

Kasu honetan, kontratazio organoak errekerimendua egingo dio esleipendunari, behin helegitea jartzeko epea helegiterik gabe igaro eta gero, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita gehienez 5 eguneko epean formalizazioa egin dezan.



Gainerako kasuetan, esleipendun eta lizitatuzaileek esleipenaren notifikazioa jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epe barruan egingo da formalizazioa (156.3 artikulua).

Formalizazio burutzeko esleipendunak honeek burutu beharko dauz:

- Administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipena parte hartzaileei jakinarazoteaz gain, formalizazioa web orrialdean publikatuko da eta, kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, BAOen ere publikatu beharko da (formalizaziotik 48 eguneko gehinezko epean, 154.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz).

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

21. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiak bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan



beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

23. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40. artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak; harmonizatutako erregulazioaren mende dauden obra, obra publikoen emakida, zerbitzu, hornidura, Sektore Publiko eta Sektore Pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta akordio markoak; Legearen 17. Artikuluan aurreikusitako subentzionatutako kontratuak; II. Eranskineko 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 193.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne.

113. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango ezta, behin kontratua esleituta, baldintza orrietan aurreikusita ez dauden kasuetan ematen diren 105. artikulutik 107. artikulura bitartez burututako kontratuen aldaketekin loturiko kontratazio organoen erabagi eta ebazpenen aurka, horiek esleipena bertan behera uztea edota esleipen berri bat egitea erabaki arren.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira botere adjudikatzailleek hartutako esleipen akordioak; lehiaketa arautzen duten



baldintza agiria, lizitazio iragarki eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituzten agiriak; tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute. Prozedura jarraitzea eragozten duten tramite ekintzat hartuko dira lizitatzailen baztertzea erabakitzen duten Kontratazio Mahaiaren ekintzak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte, beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientea egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango dizkiete interesdunek, zuzen ditzaten, eta esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dizkieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsoa beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsoren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek.

Toki Korporazioen eremuan, Autonomi Erkidegoetako arauak zehaztuko dute errekurtsok ebazteko eskumena, baldin-eta Autonomi Erkidego horiek eskumen araugile eta exekuziozkoak esleituta badituzte, toki erregimen eta kontratazio arloari dagokionean.

Arau autonomikoetan beren beregizko aurreikuspenik ez dagoen kasuetan, toki korporazioa integratzen den Autonomi Erkidegoak, bere esparruan, eskudun izendatu duten organo berak izango du eskumena.

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40.1 eta 40.2 artikuluetan aurreikusitako egintzetatik edozeinen aurka errekurtsoa aurkeztea helburu duen edonork aurretiaz adierazi beharko du kontratazio organoaren aurrean aurkeztutako idazki bidez eta errekurtsoren objektu izango den prozedimentuko egintza zehaztuz. Hori errekurtsoren aurkezpenerako hurrengo paragrafoan ezartzen den epe barruan egin beharko du.

Kontratazio arloko errekurtsu bereziaren prozedura hasiko da, aurkaratutako ekintzaren jakinarazpena bidali eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hamabost laneguneko epean aurkeztutako idazki bidez, 151.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Goiko paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe:

Errekurtsoa pleguen eta gainerako kontratuko dokumentuen edukiaren aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da beroriek jasotzen direnetik edo lizitatzaila edo hautagaien ezagutzarako beraien eskura jarri eta hurrengo egunetik aurrera.



Esleipen prozedurako tramite egintzen aurka, edo publizitate gabeko prozedura negoziatuaren aplikazio egintzen aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da balizko arau-haustearen berri izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Errekurtsoa lizitazio iragarkiaren aurka jartzen denean, argitalpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da epea.

Errekurtso idazkia kontratazio organoaren erregistroan, edo errekurtsuaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan aurkeztu beharko da nahitaez. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Errekurtso bat aurkezten bada, 5 laneguneko epean helaraziko zaie gainerako interesdunei, aurkezpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta halaber bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsuen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsuaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die.

Errekurtsuaren ebazpenak errekurtsua edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartutzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebatziko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailerak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean.

Errekurtsuaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 151. artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsuaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.



24. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Bermeon, 2016ko abenduan



I ERANSKINA

ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

LAPLko 24. artikulua garatzen duen, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 10.2. artikuluan adierazten den bezala, lan arriskuen prebentzioaren arloko enpresa jardueren koordinazioaren barnean, enpresaburu nagusiaren zaintzako betebeharren barruan, enpresa kontratistei hurrengo agiriak aurkezteko eta kreditatzeko eskatzen zaizkie.

Horregatik ondorengo agiriak aurkeztu eta kreditatu beharko dira:

- ✓ Zerbitzua emango duen enpresa kontratistaren **arduradunaren izendapena**.
- ✓ Kontratutako zerbitzuetan garatu beharreko jardueretako **lanpostu ezberdinen lan arriskuen ebaluazioa** eta **prebentzio neurrien** agiriaren kopia.
- ✓ Bermeoko Udaleko lantokian zerbitzua eskainiko duten langileen **zerrenda eguneratuta** eta langile horiei emandako **arriskuen informazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horiek prebentzio arloan hartu duten **formazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horien **lan gaitasunaren** mediku ziurtagiriaren kopia.
- ✓ Zerbitzua emango duten langileei **norberaren babeserako ekipoen ematearen** erregistroaren kopia (langileei eman bazaio).
- ✓ Enpresa kontratistaren **prebentzio baliabidearen** izendapena (izendatua balego).
- ✓ **Erantzukizun zibileko** aseguruaren polizaren kopia eguneratua (baldintza pleguetan aurkeztu ez bada).

OHARRA: Goian eskatzen diren agiriak kreditatzerakoan, bakarrik aurkeztu beharko dira Bermeoko Udaleko gune eta lantokietan zerbitzua emango duen enpresa kontratistaren langileen agiriak.



II. ERANSKINA

DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZINO KONFIDENTZIALA BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA

..... ENPRESEAK AITORTZEN DAU:

Kontratu honen xede diran zerbitzuak emoteko kontratuzko hartu-emonari jarraiki, BERMEOKO UDALarentzat Obrak/ zerbitzua/ lanak egingo dauzala.

Horreek obrak/zerbitzuak/lana egin/emoteko, BERMEOKO UDALAK,enpreseari datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategietara sartzeko baimena emon behar badeutsoz, enpreseak datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategiak BERMEOKo UDALaren kontura erabiliko dauzala.

Sarrera hori emoteagaitik, halan behar izatekotan, ezin leitekela ezelan be ulertu lagapen, emote edota Datu Pertsonalen zein Fitxategien transferentziarik dagoanik.

..... enpreseak, udalaren datuez kanpo, kontratuaren xede diran egitekoetarako, jasoten dauzan bestelako datu pertsonalak zein konfidentzialak, Bermeoko Udalaren izenean egingo dauzala, kontratu honen helburua dan proiekturako soilik erabili ahal izango dauzala, udalaren titularidadekoak izango dirala, eta datuen jasoketan Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan eta horren garapenerako araudian ezarritako eginbideak beteko dirala.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan ezarritakoagaz bat eginez, 12. artikuluan, jagoken pertsonen eskubideak bermaturik gelditzeko eta datu zein fitxategi horreetara sartzean jarraitu beharreko legediari eutsiz agintzen dan "hirugarrenek egindako tratamenduak idatziz egindako kontratuan arautuko dira" adierazpenean oinarrituta eta datu pertsonalen jasoketan araudiak exijitzen dauzan zehaztasun, informazio, ardura eta arretan oinarrituta eta, era berean konfidentzialasunak eskatzen dauzan bermeak kontutan eukita, enpreseak onartzen dauzala hurrengo

AITORPENAK

LEHENENGOA .- *Muga*

.....enpreseak, BERMEOKo UDALaren ardurapekoak diran datu pertsonaletara eta fitxategietara helduko da lotzen dauen kontratuzko hartu-emonaren izakera juridikoa eta funtzino ekonomikoak halan eskatzen badau, eta, betibe, kontratautako obra/zerbitzua/lanak hobetzeko beharrezkoa izan ezkeru.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEOKO UDALAK itxitako datu pertsonalak zein konfidentzialak, bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Horrezaz ganera, enpreseak



ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbetako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO UDALAgaz daukan kontratu hau beteteko udalaren izenean eta kontratu honen xede dan helbururako jasotako Datu Pertsonalak eta konfidentzialak bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Jasotako datuok udalaren izenean egiten dauzala informau beharko dau, eta datu-bilketea honako araudiek agindutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoa, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, zezeilaren 25eko 2/2004 Legea eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua.

Horrezaz ganera,enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbazinarako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

BIGARRENA .- *Araudia*

.....enpreseak Datu Pertsonaletara eta Fitxategietara egindako sarbidea, Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoaren xedapen zehatzak eta garapen araudi ezargarriak arautuko dabe.

.....enpreseak Datu Pertsonalen arautegiak, tratamentuaren arduradunari ezarten deutzazan eginbeharrak eta betekizunak eta datu pertsonalen jasoketan kontuan euki beharrekoak bere gain hartzen dauz. Halanda ze, Datu Pertsonalen Babeserako Legeak garatzen dauen berme aginduagaz bat eginez, datuen izakerearen arabera eta ezarten diran tratamentuen arabera, behar diran neurri teknikoak, antolaketakoak eta behar diran neurriak diseinetako, ezarteko eta gordeteko konpromisoa eta betebeharra daukaz.

HIRUGARRENA .- *Ardurea*

Legeak BERMEOKo UDALA "arduradun" izentetan dau jagokon administrazioaren zein auzitegiaren aurrean.enpreseak, "eragileak", BERMEOKo UDALAK emondako aginduak beteta, zuzenean edo zeharka Datu Pertsonalen mendekotasunak sortzen dauzan erantzukizun danak bere gain hartzen dauz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak edota eskumena daukan beste erakunderen batek, erantzukizunaren egozketa edo gatx-kalteakaitiko ordainen erreklamazioa egingo baleutso Bermeoko Udalari, BERMEOKo UDALAKenpreseak aurka jo leike Jurisdikzio Zibil Arruntaren aurrean, jagokozan itzulera eta konpentsazio ekintzak bideratzeko, baita beste edozein egiazko, ahalezko, moralezko zein etorkizuneko gatx-kalteak konpentsetako be eta, bardin, informazio konfidentzialak era desegokian erabiltzen badira.

LAUGARRENA .- *Konfidentziasuna*

.....enpreseak, sarbidea daukan datu pertsonalen zein eskuratutako informazio konfidentzialen isilpeko izakerea gordeteko eta inori ez zabaltzeko konpromisoa hartzen dau, baita kontratautako obra/zerbitzu/lanetatik kanpo ez



erabilteko konpromisoa be.enpresek bere ardurapeko langileek ez dabezala horreek datu pertsonalak zabalduko bermatzen dau, baita modu desegokian ez dabezala erabiliko be.

Konfidentziasun eginbehar horrek, BERMEOKO UDALAREN ardurapean dagozan datu pertsonaletara edo fitxategietaraenpresek egindako sarbidea dala-eta, Bermeoko Udalgaz egindako kontratuaren helburua lortzeko honen izenean jasotako bestelako datu pertsonalak dirala-eta, zein eskuratutako informazio edota datu konfidentzialak dirala-eta, sortutako zerbitzu hartu-emonaren amaitu ostean be iraungo dau egitez edo eskubidez, itxura, era eta denpora albo batera itxita.

BOSGARRENA.- *Ebazpena*

Honek akordioak muga bako iraupena dauka, baina obra/zerbitzu kontratuaren hartu-emonaren iraupenagaz lotuta dago.enpresek, obra/zerbitzua/lanak amaitu eta gero, zerbitzua beteteko erabili dauen euskarria deuseztatu egingo dau, baita kopiak eta bestelako euskarriak be (informatikoak izan zein ez), beti be, Udalak itzultzeko eskatzen ez badeutso.

SEIGARRENA.- *Ezarri leitekezan jurisdikzioa eta legeria*

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa eta lege hori garatzen dauen araudia be ezarri ahal izango dira. Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren ebazpenak be hartuko dira oinarritzat.

Klausula honen interpretazioak edo ezarpenak sortu leikezan zalantzak, desadostasunak zein bestelako arazoak eta eztabaidak, Gernika-Lumoko Auzitegiaren mende ipiniko dira. Bi aldeek uko egiten deutsee Antolamendu Juridikoaren arabera eskumenak daukiezan beste epaitegiei.

Bermeon, 2016koarenan



III. ERANSKINA

Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,
..... Helbidearekin eta
zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo
Helbidea eta IFZ daukan
izeneko enpresaren ordez,

AITORTZEN DUT:

- I.-
xedeak daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
- II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.
- III.- Ordezkatzen dudak enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.
- IV.- Aipatutako kontratuaren betearazpena(zenbakitan/hitzetan) Eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa€koa (zenbakitan /hitzetan) izango dala.

Bermeon, 2016korenan.

Sinatuta:
NAN:



IV. ERANSKINA
Zinpeko Aitorpenaren Eredua

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,
..... helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordezt,

**KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN
DU**

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez duela.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2016korenan.

Sinatuta:
NAN:



V. ERANSKINA
Lizitazaileek betetzeko inprimakia

ENPRESAREN DATUAK

1. Enpresa indibiduala

Izena:

NAN:

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

PK:

Erregistratutako merkataritza- izena:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

2. Gizarte-enpresa:

Izena:

IFZ:

Eratze-data:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

Ondorengo giza-eskiturak:

IZENA

DATA

1. Aldatzea

...../...../.....

2. Handitzea

...../...../.....

3. Beste batzuk

...../...../.....



3. Ahalduna:

Izena:

Ahalordetze-eskritura :

- Data :
-ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

Bermeon, 2016korenan.

Sinatuta:

NAN:



VI. ERANSKINA
Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru
Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroko datuen baliagarritasunaren
Zinpeko Aitorpenaren Eredua

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid
uneko NANarekin , helbidea eta
.....IFZ daukan izeneko
enpresaren ordezt,

KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN
DU

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluari dagozkionak.

Bermeon, 2016korenan.

Sinatuta:
NAN:



VII. ERANSKINA KAUDIMEN EKONOMIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid
uneko NANarekin , helbidea eta
.....IFZ daukanizeneko enpresaren ordezt,
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen
ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

Enpresaren negozioen kopurua azken hiru urtetan ondokoa izan dala:

2013. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

2014. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

2015. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta
gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2016korenan.

Sinatuta:

NAN:



VIII. ERANSKINA KAUDIMEN TEKNIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko
NANarekin, helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordez,
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen
ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

1. Azken hiru urtetan enpresa honek egindako lanak ondokoak izan direla:
 - 2013. Urtea
 - 2014. Urtea
 - 2015. Urtea
2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:
3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:
4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknikoa frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2016korenan.

Sinatuta:
NAN:



**IX. ERANSKINA:
MINUSBALIADUN LANGILERIARI BURUZKO AITORPENA.**

.....Ja/A^a.....NAN zenbakiduna,
.....zenbakiduneko IFK daukanenpresaren ordeaz eta
izenean,

Erantzunkizunpean, Adierazten dau:

1.- Agiri honek aurkezteko dataz, goian aipatutako enpresak ondorengo langile kopuru eta motak daukazala:

- MINUSBALIADUN langileen kopurua, guztira:.....

- Enpresaren plantilakoak diranak eta besteren kontura lan egiten daberen lagileen kopurua, autonomoak eta bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira:

- Enpresaren plantilako langile guztien artean, MINUSBALIADUN langileek suposatzen daberen portzentaia, autonomoak edota bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira:

Aitorpen hau kreditatzeko asmoagaz, administrazio honek Enpresa lizitatzailerari eskatzen deusozan agiri guztiak entregatzeko konpromezua hartzen dau.

Bermeon, 2016koarenan.



**X. ERANSKINA:
GIZARTERATZEKO ENPRESEA IZANDA, LANPOSTUEN %30EAN
GITXIENEZ BAZTERTZE EGOERAN DAGOZAN PERTSONAK
KONTRATATZEKO KONPROMISOA.**

.....J^a/A^a.....NAN zenbakiduna,
.....zenbakiduneko IFK daukanenpresaren ordeztu eta
izenarekin,

Erantzunkizunpean, aitortzen dau:

Ordezkatzen dauan enpresek Gizarteratzeko enpresen erregulazioa arautzen
dauan 44/2007 betetzen daua.

Beraz, baldintza hori beteta, **adierazoten dau:**

Baldintza agiritako 8. atalean aitaturako esleipen lehentasuna aplikatze aldera,
enpresek daukazan lanpostuen %30ean gitxienez, baztertze egoeran dagozan
pertsonak kontratatze konpromisoa hartzen dala.

Bermeon, 2016koarenan.



XII. ERANSKINA ZINPEKO AITORPENAREN EREDUA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko
.....NANarekin, helbidea eta
.....IFZ daukanizeneko enpresaren
ordez,

KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor edo administrazio-arloko zigorrik jaso **EZ** dutela.

Bermeon, 2016korenan.

